

Goi-mailako joskintzakoteknikak
Ikastaro presentziala
Maila aurreratua

Jantzigintza

2026.06.22—26

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA



Cristobal Balenciagaren teknikaren transmisioa sustatzeko eta ezagutza hori modaren arloko profesionalen belaunaldi berri baten eskura jartzeko helburuarekin, museoak maila-aurreratuko ikastaro hau aurkezten du jostunaren jostundegietan erabiltzen ziren metodo espezifikoetan zentratuta.

Prestakuntza praktikoa eta intentsiboa da, eta jantzigintzako ibilbideko ikastaro-programazioaren parte da. Proposatutako prestakuntza-planaren barruan nahiz modu independentean egin daiteke. Interesdunak ibilbide bereko hastapen- edo/eta erdi-mailako ikastaroa aldeztatik burutu izana balioesten bada ere, ez da nahitaezko baldintza plaza bat eskuratzeko.

Ikastaroak bost egun iraungo du, eta barne hartuko ditu josteko eta lisatzeko tekniken erakustaldiak. Parte-hartzaileek horietan gaitasun praktikoak lor ditzaten, Parisko Balenciaga Etxean egindako konjuntio bati dagokion jake baten erdia landuko dute. Hain zuzen ere, egun museoaren bildumakoa den 1966ko otsaileko artile urdin eta zurizko zarga gurutzatuko modeloa, eta jostunaren gaitasun tekniko zorrotzaren erakusgarri dena.

Gauzatu beharreko ariketak, jostintzako ehunen akaberaren tratamenduari eta manga japoniarra eta kartera poltsikoak dituen koadrodun jake bat eskuz egiteko teknika eta eragiketei dagozkie. Arreta berezia jarriko zaio patroia ehunaren motibora egokitzeari, laukiaren harmoniari eutsiz.

JANTZIGINTZA	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen-maila	20 ordu	Presentziala
2. Erdi-maila	27 ordu	Online
2. Erdi-maila [berria]	22 ordu	Online
3. Maila aurreratua	35 ordu	Presentziala

Ikastaroaren eta programaren aurkezpena

1. Landuko den emakume-janzkirako hurbilketa

- Joskintzako atelierra
 - Jakaren eta gonaren egitura
 - Nattier-en sarga bikoitza
 - Diseinua oihalera egokitzea
 - Eraikitzea eta teknikak
-

2. Jarduera praktikoa: lana prestatzea eta ebaketa

- Oihala histea
 - Jakako piezak markatzea
 - Artehunak
 - Sorbaldakoa
 - Forruak
-

3. Jarduera praktikoa: markak eta albaintzea

- Hari lasaiak eta markak
 - Artehuneren aplikazioa
 - Xingola aplikatzea aurrealdeko ertzean
 - Albaintzea eta lehen probarako aurkeztea
-

4. Jarduera praktikoa: jostea eta plantxatzea

- Ezkontzeko albaindurak, koadrodun oihaletan
 - Alozak josi eta plantxatzea
 - Sorbalda eta mahuka japoniarren? Josturak muntatzea
 - Alboaldea eta sagita sartzea
-

5. Jarduera praktikoa: sorbaldakoa

- Artehuna edo perkala ebakitzea eta atzera-puntadak egitea
 - Guatina mailaka ebakitzea
 - Sorbaldakoa pikatzea eta eratzea
-

6. Jarduera praktikoa: botoi-zuloak eta poltsikoak

- Botoi-zuloak markatzea
 - Xingolak jartzea, koadroekin ezkonduz
 - Poltsikoetako irekiduretako apaindurak prestatzea
 - Azken horiek alozean sartzea
-

7. Jarduera praktikoa: Balenciaga lepoa

- Balenciaga lepoa deitutakorako sarrera
- Harien arabera ebakitzeko egokitzea
- Lepoa pikatzea eta moldatzea
- Lepoaren tapa ebakitzea
- Taparen aplikazioa eta alozak
- Eskuz bukatzea

Javier Martín

Ávilan jaio zen, baina Madrilen bizi da. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991. urtean, modako goi-mailako diseinatzaile gisa. Prestakuntza-urteetan, Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek hiriburuko EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Getariako moda-sortzailearen jostintza-teknika espezifikoak ikasi zituen eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

Hamar urtean Sybillaren taldeko kidea izan zen, 2005era arte. Urte horretan, goi-mailako jostintzara bideratutako bere marka propioa sortzea erabaki zuen, Nihil Obstat izeneko. Diseinatzaile gisa eta beste sortzaile batzuekin lankidetzan aritzen da; esaterako, Carmen March, Jesús del Pozo edo Joaquín Trías sortzaileekin. Azken hori Balenciaga etxeko maniki baten biloba da. Horiei guztiei aholkularitza teknikoak ematen die. 2012tik 2019ra, DELPOZO marka espainiarerako egiten du lan. Bertan, bildumaren zati baten bolumenak modelatu eta garatzen ditu, eta nazioartean sona duten luxuzko prêt-à-porter jantziak egiten ditu.

Irakaskuntzan ere aritzen da eta Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioi hezkuntza-proiektuetan parte hartu du. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Centro Superior de Diseño de Modan, Diseinuaren Europako Institutuan, eta Granadako Estación Diseño izeneko eskolan diseinuari eta modelatzeari buruzko ikastaroak eman ditu, besteak beste. 2015. urteaz geroztik Cristóbal Balenciaga Museoaren hezkuntza programan parte hartzen du, Balenciaga Etxeko tailerretan erabilitako jostintza teknikak bildu eta helaraziz.



Datak	2026ko ekainaren 22tik 26ra.
Orduetgia	10:00-14:00/15:00-18:00 Guztira, 35 orduko jarduera.
Hizkuntza	Gaztelania.
Parte-hartzaileak	<p>Modaren Diseinua, Patroigintza eta/edo Jantzigintzako tituludunak, modaren arloko profesionalak, eta jantzigintzako goi-mailako jostintzaren teknikak sakonago ezagutu nahi dituzten guztiak. Bereziki egokia da aurretik museoak antolatutakoa jantzigintzako goi-mailako jostintza-tekniken hastapen- edo/eta erdi-mailako ikastaroak egin dutenentzat.</p> <p>Gehienez ere, 16 parte-hartzaile izango dira. Eskatutako dokumentazioaren arabera, parte-hartzaileen aukeraketa egingo da, eta apirilaren 30etik aurrera adieraziko da zeintzuk diren esleitutako plazak.</p>
Baldintzak	Parte-hartzaileek jostintza-teknikei buruzko ezagutzak izan eta egiaztatu beharko dituzte, eta jantzi bat moztu, josi eta prestatzeko gai izan beharko dira.
Izen-ematea	Izen-emateak apirilaren 15era arte egongo dira irekita (egun hori barne, 14:00ak arte). Interesdunek online dagoen inskripzio-formularioa bete beharko dute, eta modaren esparruan duten trebakuntza eta esperientziaren berri eman beharko dute curriculum vitaean. Motibazio-gutuna ere aurkeztu beharko da. Bertan, interesdunak jarduerarekin duen interesaren berri eman beharko du, bai eta jardueraren edukiarekin duen lotura ere. Osatu gabeko edo epez kanpo jasotako eskariak ez dira onartuko.

Prezioa

475€. Prezio horren barnean daude ariketak egiteko materialak, 55€ko balioa dutenak. Museoak kit bat izango du parte-hartzaile bakoitzarentzat, behar diren gauzekin: artilezko ehuna, artehuna, galoizko zinta, forrua eta guatina, proposatutako ariketak egiteko beharrezkoak direnak. Bestalde, parte-hartzaileek joskintzako oinarrizko tresnak (artaziak, orratzak, jostorratzak, hariak, marka-harria, etab.) ekarri beharko dituzte.

Cristóbal Balenciaga fundazioak jaso beharreko matrikularen prezioa lehen aipatutakoa da, bankuko gastu guztiak parte-hartzaileak bere gain onartuko ditu.

«Museoko lagunei» dagokien deskontua matrikula egiteko unean gutxienez bi urteko antzintasuna duten lagunei soilik dagokie.

Plaza mugatuak/Aldez aurretik izena eman behar da

Parte-hartzaileen gutxienerako kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.

Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztagiria emango da.

Harremanetarako

T +34 943 004 777
info@fbalenciaga.com

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@Cristóbalbalenciagamuseoa.com
www.Cristóbalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

